

## DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIA

**21648** 1/2006 INSTRUKZIOA, azaroaren 8koa, Datuak Babesteko Espainiako Agentziarena, zainketa asmoekin kameren eta bideokameren sistemen bidez izaera pertsonaleko datuen tratamenduari dagokiona.

Azken bolada honetan, zainketa asmoekin kameren eta bideokameren sistemen instalazioek izan duten hazkundeak hainbat zalantza sortu ditu horri dagokion irudien tratamenduari buruz.

Gainera izaera pertsonaleko datuak tratatzeko hainbat modu eskaintzen duen sektorea da, hala nola telebistarako zirkuitu itxiak, «webcam» gailuen bidezko grabazioak, irudien digitalizazioa edo lantokian kamerak jartzea.

Aurten azaroaren 1etik 3ra Londresen egindako Datuak Babesteko Autoritateen Nazioarteko Biltzarra, hain zuzen ere, datuak babesteko funtsezko eskubidearen eskakizuna bideozaintzari egokitzeko beharraz aritu da. Hori horrela, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 37 1.c) artikulua emandako eskumena aintzakotzat hartuta, beharrezkotzat hartzen da Datuak Babesteko Espainiako Agentziak instrukzioa ematea zainketarako irudien tratamendua egokitzeko Lege Organikoaren printzipioekin eta bermatzea pertsonen eskubideak, zeinen irudiak prozedura horien bidez tratatuak izan diren.

Instrukzio hau aritzen den eremua argia da. Segurtasuna eta zaintza, egungo gizartean dauden elementuak, ez dira bateraezinak izaera pertsonaleko datutzat izandako irudia babesteko oinarritzko eskubidearekin, eta horrek indarrean dagoen datuak babesteko araudia betetzera behartzen du herritarren konfiantza sistema demokratikoan mantentzeko.

Irudiak izaera pertsonaleko datutzat hartzen dira, 15/1999 Lege Organikoaren 3. artikulua eta ekainaren 20ko 1322/1994

Errege-dekretuaren 1.4 artikulua aintzakotzat hartuta, eta izaera pertsonaleko datutzat hartzen du informazio grafikoa edo fotografikoa. Bideokamera-sistemen instalazioari buruz, kontuan hartu beharko dira babesturiko ondasun juridikoak.

Beraz, instalazio orok proportzionaltasunaren printzipioa bete beharko du eta, horren ondorioz, posible denean, pertsonen intimitatearentzat hain erasokorrak ez diren beste bitarteko batzuk hartu beharko dira oinarrizko eskubide eta askatasunetan bidegabeko interferentziak prebenitzeko. Hortaz, kamera edo bideokameren erabilera zainketa funtzioetarako ez da hasierako bitartekoa izan behar eta horregatik, ikuspegi objektiboa kontuan hartuz, sistema horien erabilerak proportzionala izan behar du lortu nahi duen helburuarekiko, betiere legitimoa izanik.

Proportzionaltasunari dagokionez, zehaztugabeko kontzeptu juridikoa izanagatik ere, Konstituzio Auzitegiaren 207/1996 epaiaren arabera «eskaera arrunta eta iraunkorra da oinarrizko eskubideen neurri murriztailearen konstituzionaltasunerako, esate baterako esku-sartzeak direnak intimitatearen eta osotasun fisikoaren eskubideetan, eta zehazkiago zigor-prozesu batean harturiko oinarrizko eskubideen neurri murriztaileak proportzionaltasun printzipioaren betetze zorrotzean dautza.

Zentzu horretan, azpimarratu dugu oinarrizko eskubide baten neurri murriztaile batek proportzionaltasun auzia gainditzen duen baieztatze, beharrezkoa izango dela honako hiru baldintza edo betebeharrak egiaztatzea: neurria gai den ezarritako helburua lortzeko (egokitasun auzia); gainera, beharrezkoa den, hau da, ez dagoelako beste neurritzko irtenbideren bat (beharrizan auzia); eta azkenik, neurritzkoa edo orekatua den, harengandik etekin edo abantaila gehiago datorrelako interes orokorarentzat auzian dauden beste ondasun edo baloreen gainean kalteak baino (proportzionaltasun auzia zentzu hertsian)».

Halaber, proportzionaltasuna oinarrizko elementua da bideozaintza ezartzen den eremu guztietan, printzipioa

urratzen denean askotan neurritz kanpoko egoerak ekar ditzakeelako, esate baterako zainketa-sistemen instalazio ororen esparruetan edo lantokiko komunitan. Horregatik nonahiko zainketa ekidin nahi da pertsonen zaugarritasuna eragozteko.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 2.a) artikulua aintzakotzat hartuta etxeko erabilera edo helburuetarako grabaturiko datu pertsonalak Instrukzio honetatik at geratzen dira, nahiz eta 2003ko azaroaren 6ko epaian Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak adierazitakoari zehatz-mehatz jarraituz, Lindqvist auzian, 1995eko urriaren 24ko Batzordearen eta Europako Parlamentuaren 95/46/CE zuzentarauaren 3. artikulua 2. idatz-zatian aurreikusitako salbuespena interpretatzean, pertsona fisikoen babesari dagokiona datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askea kontuan hartuz, Instrukzioak adierazten baitu soil-soilik aurreikusten dituela «partikularren bizitza pribatuaren edo familiarraren esparruan izandako jarduerak» eta ez beste batzuk. Zentzu berean ematen da 2002ko azaroaren 25eko 95/46/CE zuzentarauaren 29. artikulua sorturiko Lantaldearen arabera harturiko 4/2004 irizpena. Gainera Instrukzioa ez da irudien tratamenduari aplikatuko ere Segurtasun Indar eta Kidegoen funtzioetarako erabiltzen direnean, berariazko arauak baitituzte, nahiz eta tratamendu horiek 15/1999 Lege Organikoak ezarritako bermeak bete beharko dituzten. Beste alde batetik, Instrukzioaren asmoa tratamenduak egokitzea da Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak finkaturiko irizpideekin datu pertsonalen tratamenduak ez duelako kontserbazioa eskatzen, euren bilketa edo grabaketa nahikoa izanik. Zentzu berean ematen dira Europar Batasuneko estatuek gai horri buruz ezarritako legediak, 95/46/CE zuzentarauaren agindua betez.

Azkenik datu pertsonalak babesteko erabateko bermeek, baita euren tratamenduaren berezitasunek ere, arautze zehatza eskatzen dute arau abstraktu eta sakabanatuen multzoaren aplikazioa eragozteko. Horregatik, irudien tratamenduaren legitimazioa arautzeko Datuak Babesteko

Espainiako Agentziaren aburuz derrigorrez bete behar da LOPDren 6.1 eta 2 artikulua eta 11.1 eta 2 artikulua araututakoa, indarrean dagoen legediak zaintza kamera eta bideokamerak instalatzeko eskatzen dituen baldintzen kaltetan izan gabe. Halaber, Lege Organikoaren 5. artikuluan aurreikusten den informazio eskubidearen edukia arautzen da, baita Lege Organikoaren 15. artikuluan eta hurrengoetan finkatzen den eskubideen egikaritzea ere. Jakina, bideozaintzako fitxategi bat sortzeak Datuak Babesteko Espainiako Agentziari alde aurretik jakinaraztea eskatzen du, Erregistro Orokorrean inskribatzeko.

Horri jarraiki, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 37.1c) artikulua arabera, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko, xedatzen dut:

## **1. artikulua. Eremu objektiboa**

1. Instrukzio honek pertsona fisiko identifikatuen edo identifikatzeko gai diren irudien datu pertsonalen tratamendua arautzen du kamera edo bideokamera sistemen bidez zaintzeko.

Instrukzio honek helburutzat duen tratamendua barne hartzen du irudiak grabatzea, biltzea, transmititzea, kontserbatzea eta gordetzea, denbora errealeko erreprodukzio eta emisioa barne, baita haiekin loturiko datu pertsonalen tratamendua ere.

Pertsona bat identifikatu ahal da instrukzio honek ezartzen dituen tratamenduen bidez bere identitatea zehaztu daitekeenean, horrek epeak eta jarduerak neurritz kanpokoak izatea eskatu gabe.

Instrukzio honek kameraren eta bideokameraren aipamena egin duenean barne hartzen du antzeko edozein bitarteko tekniko eta, orokorrean, instrukzioan bertan ezarritako tratamenduak onartzen dituen edozein sistema.

2.Segurtasun Indar eta Kidegoek erabilitako kameren eta bideokameren bidez lorturiko irudietatik hartutako datu pertsonalen tratamendua gaiari buruzko xedapenen bidez arautuko da.

3.Instrukzio honek ez du arautuko etxean eta eremu pertsonalean izandako irudien tratamendua, hau da, pertsona fisiko batek soil-soilik egindakoa jarduera pribatu edo familiarrean.

## **2. artikulua. Legitimazioa**

Instrukzio honek arautzen dituen datuen tratamendua bakarrik gerta daiteke Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.1 eta 2 artikuluan eta 6.1 eta 2 artikuluan xedatutakoa aintzakotzat hartuta.

Aurreko atalean adierazitakoaren kalterik gabe, kamerak eta bideokamerak instalatzean gaiari buruz indarrean dagoen legediak eskaturiko baldintzak bete beharko dira

## **3. artikulua. Informazioa**

Bideozaintza-sistemak dituzten arduradunek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan aurreikusitako informazio-eginkizuna bete beharko dute. Hortaz:

- a) Bideozaintza-guneetan, gutxienez, informazio-ezaugarri bat ipini beharko dute behar bezain ikusgai izango den toki batean, bai eremu irekietan bai eremu itxietan eta
- b) Inprimakiak izan beharko dituzte interesdunen esku, 15/1999 Lege Organikoaren 5.1 artikuluan aurreikusitako informazioa zehaztuz. Informazio-ezaugarriaren edukia eta diseinua Instrukzio honen eranskinean adierazitakoaren arabera izango da.

## **4. artikulua. Kalitate, proportzionalitate eta tratamenduaren helburuaren xedea**

1. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 4. artikulua aintzakotzat hartuz, irudiak soil-soilik tratatuak izango dira aproposak, egokiak eta ez-gehiegizkoak direnean kameren edo bideokameren instalazioek egiazaturiko eremu eta helburu finkatuak, legítimoak eta esplizituak kontuan hartuz.

2. Kameren edo bideokameren instalazioa soil-soilik onargarria izango da zaintza ezin denean gauzatu beste bitarteko batzuen bidez, gehiegizko ahaleginak eskatu barik, pertsonen intimitaterako eta izaera pertsonaleko datuak babesteko eskubiderako hain erasokorrek ez direnak.

3. Eremu pribatuetan jarritako kamerek eta bideokamerek ezin izango dute eremu publikoetan irudirik lortu behar-beharrezkoa ez bada dagokien zainketa helbururako edota hori ekiditea ezinezkoa bada duten kokapena dela kausa.

## **5. artikulua. Pertsonen eskubideak**

1. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 15. artikulua eta hurrengoek xedatutako eskubideen egikaritzarako interesdunak eskaria igorri beharko dio tratamenduaren arduradunari non eguneratutako irudiarekin batera bere identitatea egiaztatuko dion. Eskubideen egikaritza Lege Organikoan eta garapen-araudian xedatutakoa aintzakotzat hartuta egingo da.

2. Arduradunak sarbide-eskubidea erraztu ahalko du ziurtagiri baten bidez non, ahalik eta zehatzen eta hirugarrenen eskubideak kaltetu barik, trataturiko datuak zehaztuko diren.

3. Aurreko paragrafoan zehazturiko eskubideen egikaritza erabat edo partzialki ukatzen zaion interesdunak Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren babesa eskatu ahalko du.

## **6. artikulua. Deuseztapena**

Datuak deuseztatuko dira bildu zirenetik gehienez hilabeteko epean.

## **7. artikulua. Fitxategien jakinarazpena**

1. Bideozaintza-fitxategiak sortzea aurreikusten duen pertsonak edo erakundeak aldeztu aurretik Datuak Babesteko Espainiako Agentziari jakinarazi beharko dio, Erregistro Orokorrean inskribatzeko. Titulartasun publikoko fitxategiak izanik Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

2. Hori horrela, ez da fitxategizat hartuko soil-soilik denbora errealeko irudien erreproduzioan edo emisioan oinarrituriko tratamendua.

## **9. artikulua. Segurtasuna eta sekretua**

Arduradunak beharrezko neurri tekniko eta antolamenduzkoak hartu beharko ditu datuen segurtasuna berma dadin eta euren aldaketa, galera, tratamendua edo ez baimendutako sarbidea ekiditeko.

Halaber, bere funtzioak direla kausa datuetara sarbidea duen edozein pertsonak datuoi dagokien diskrezioa, konfidentziasuna eta isiltasuna gorde beharko du.

## **Xedapen iragankorra**

Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Erregistro Orokorrean inskribaturiko bideozaintza-fitxategien arduradunek Instrukzio honen 4.3 artikuluan eta 3.c) artikuluan aurreikusitako neurriak bete beharko dituzte indarrean sartu eta gehienez hiru hilabeteko epean.

## **Azken xedapena**

Instrukzio hau «Estatuko Aldizkari Ofizial»-ean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Madriren, 2006ko azaroaren 8an

-Datuak Babesteko Espainiako Agentziako zuzendaria  
José Luis Piñar Mañas

## ERANSKINA

1. Instrukzio honen 3.a) artikuluko informazio-ezaugarriak «DATUAK BABESTEKO 15/1999 LEGE ORGANIKOAREN» erreferentzia izan beharko du, aipatu beharko du («BIDEOZAINZA GUNEA») datuen tratamenduaren xedea, eta Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 15. artikulua eta hurrengoek xedaturiko eskubideen egikaritza ahalbidetuko duen arduradunaren identifikazioari aipamen zehatza.

2. Aurreko idatz-zatiak adierazitako eredia, <http://www.agpd.es/>, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren webgunean dago eskuragarri, deskargatzeko aukera izanik arduradunaren datuak zehaztuz.